

USOA ETA ARMIARMA

Aurélie Christmann, 12 urte

Kanbo

Bazen behin, oihan ttipi eta polit batean, lore handi eta eder baten barnean bizi zen armiarma bat; Haize deitzen zen. Haizek ez zuen haririk sarea egiteko, eta, horregatik, inguruko guziak trufatzen zitzaizkion.

Egun batez, beste armiarma batzuek egindako sare-tranpa batean erori zen eta kokaturik gelditu zen. Gau guzia pasatu zuen zilo hartan; biziki gose zen eta euli bakar bat ere ez zuen atzeman beste armiarnek egindako sarean, zilo beltz-beltz hartan.

Haize gaixoak laguntza eskatzen zien handik pasatzen ziren guziei, baina denek zorrozki begiratzen zioten eta esaten:

– Zango bat hautsi baldin baduzu, zergatik ez duzu sare bat egiten hura lotzeko?

Armiarma gaixoak ihardesten zien haririk ez zuela, eta, berriz ere, laguntza eskatzen zien desesperaturik. Besteek ordea zikinkeria bat balitz bezala begiratzen zioten.

Egun guzia pasatu zuen horrela, laguntza galdetza, baina inor ez baitzitaion jin, bere buruari

galdegiten zion ea horrela pasatu beharko ote zue-
nentz beste gau oso bat, zilo galdu hartan etsiturik.

Halako batean, azkenean, uso batek ikusi zuen
armiarma, erdi hila, abandonatua, inork kasurik
egiten ez ziola. Haizek doi-doi zuen janaria eska-
tzeko indarra. Usoak horrelako bidegabekeria iku-
sirik, bere amatxi ikustera joan zen, armiarmek zer
jaten zuten galdegiteko. Amatzik galdegin zion
zendako zen hain presatua eta zertarako eskatzen
zion informazio hura. Usoak erantzun zion beste
animalien elikaduraz interesatzen hasten zela.
Amatxi lehenik harritu zen, baina hura pasatuta
erantzun zion intsektuak jaten zituztela armiarmek
eta bereziki euliak. Usoak bere amatxi eskertu
zuen eta joan zen euli baten bila. Baina ez zen
oroitzen non aurkitzen ziren eta xerkatzen zuen
nonahi.

Azkenean apo bat aurkitu zuen eta hauek euliak
jaten zituztela baitzekien, galdetu zien ea emaiten
ahal zizkion euliak, edo euli beltzak bederen;
honek erantzun zion euliak nahi baldin bazituen,
aski zuela bere ahalbideekin harrapatzea, eta mol-
datzeko onak izan zitezten. Usoak ez zituen azken
hitz haiek ulertu, baina bazekien gutik ulertzen
zituztela apoen azken hitzak... Beraz, lehen bezala
euli xerka segitu zuen. Momentu batean, pentze
batean pausatzen ari zelarik, asto bat ikusi zuen eta
zer ikusten du astoaren gainean? Euliak...! Goraki
bota zuen azken hitz hau. Astoak begiratu zion
harriturik galdetuz:

– Ez duzu sekula euli bat ikusi ala?

– Jaten baitituzu euliak?
– Nik? Euliak jaten? Baina... belar jalea naiz ni!
– Beraz, hartzen ahal dizkizut?
– Bistan da baietz!, astoak biziki kontent, baina nola egingen duzu?

– Bada, armiarma sare bat hartuko dut aztaparrerekin eta zure itzulia egingen dut.

– Ados naiz, plan hona iduritzen zait; gainera, lasaiago izanen naiz.

Eta usoa badoa sare baten bila. Aldi honetan badaki nora joan. Ez du denborarik galtzen eta laster heldu da berriz astoarengana sarearekin. Erran bezala, astoaren inguruan itzuli batzuk egin-eta, euli anitz harrapatu zituen. Astoa eskertu eta gero, armiarmarengana joan zen.

Armiarma lokartua zen. Gaua hasia zen. Usoak esnatu zuen. Usoa ikustean biziki izitu zen. Baina usoak euli bat proposatu ziolarik, lasaitu zen. Usoak galdetu zion nahi zuenez ziloan berean jan edo handik atera berehala. Armiarmak nahiago zuen berehala ateratzea, baina ezin zuela esan zion. Beraz, goxoki-goxoki, usoak hartu zuen armiarma eta eraman zuen. Honek eulia jatea bukatu-eta, usoari galdegin zion:

– Nor zara? Eta zendako salbatu nauzu? Nola deitzen zara?

– Iparra deitzen naiz, uso bat naiz eta salbatu zaitut erdi hila baitzinen eta inork ez baitzizun kasurik egiten.

– Baina uso bat baldin bazara, ez zinen behartua ni salbatzera, eta, gainera, euli bat ekartzera nire-

tako... Baina infinituki eskertzen dizut egin duzuna. Beste galdera bat... Nola jakin duzu ni ziloan nintzela, armiarmek zer jaten dugun eta euliak non atzemaiten diren eta hori guzia? Ni Haize deitzen naiz, haririk gabeko armiarma naiz.

– Lehenik ikusi zaitut ziloan. Eta ez nuen norbait horrela utzi nahi, erdi hila... Gero, ikustean hiltzen ari zinela, pixkanaka-pixkanaka, ez jateagatik, nire amatxiri galdegin diot zer jaten zenuten armiarmek. Eta azkenik denetan xerkatu dut aurkitu arte. Horra!

– Milesker, berriz!

Hortik hara, ez da nehor sekula Haizez trufatu eta, gainera, hari ugari du geroztik. Usoak segitzen dit bera harat-honatak eta arazo bat sortzen delarik beti hor da.

Egun batez arazo bat baldin baduzue, Ipar-Haize bikoteari galdegin laguntza...